



MONREAL ZIA, Gregorio

Zuzenbidearen Historiako katedraduna
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Arrosadiako Campusa z/g
31006 Iruña
zia@unavarra.es

BIBLID [1137-1951 (2003), 11; 7-18]

Nafarroako Euskararen Legearen jatorria¹

(Origin of the Law on the Basque language of Navarre)

Zan honetan, euskara Nafarroan historian zehar nola errotu den azaltzen zaigu, eta araudian nola islatu den bere ofizialtasuna, bai Nafarroako Autonomia Estatutuan, lurraldea hiru eremutan banatuz, bai gerora onartzen joan diren legeetan.

Giltza hitzak: Euskara. Nafarroa. Ofizialtasuna. Irakaskuntza. Administrazioa. Komunikabideak.

El presente trabajo explica el arraigo social del euskera desde el punto de vista histórico, y describe su declaración de oficialidad tanto en el Estatuto Autonómico de Navarra como en las posteriores leyes lingüísticas que se han ido aprobando.

Palabras clave: Euskera. Navarra. Oficialidad. Enseñanza. Administración. Medios de comunicación.

Ze travail explique l'enracinement social de la langue basque du point de vue historique, et décrit sa déclaration du caractère officiel dans le Statut d'autonomie de Navarre et dans les lois linguistiques.

Mots clés: Euskera. Navarre. Caractère officiel. Enseignement. Administration. Moyens de communication.

1. Honako testu hau, 1990ean argitaratu emandako lan zabal eta dokumentatuago bat laburpen bat da: MONREAL ZIA, Gregorio. *La oficialidad del euskara en Navarra*, In: "Jornadas sobre el Régimen jurídico del Euskera", Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1990; 11-163 orr. Itzultzailea: Koro Garmendia.



1. **Aurrekariak:** 1.1. "Hizkuntza propio" kontzeptuaren esanahi juridikoa. 1.2. Euskara, Nafarroako hizkuntza "propioa"? 1.3. Euskararen aintzatespen ofizialaren aurrekariak XIX eta XX. mendeetan. 1.4. Euskararen ofizialtasunaren lehenengo adierazpena Nafarroan, 1980ko azaroan. 2. **Euskara 1982ko Foru Hobekuntzan.** 3. **Euskararen Foru Legea:** 3.1. 1986ko udazkeneko hasierako Proiektua. 3.2. Foru Eraentzaren Batzordearen debatego zenbait alderdi: hizkuntzaren izena, Atarikoaren justifikazioa, hizkuntza estandarra eta eremutzea. 3.3. Euskararen Foru Legearen ebaluazio konparaturako parametroak eremu euskaldunean. 3.4. Eremu mistoko hizkuntza erregimena. 3.5. Sustapenik ez eremu ez-euskaldunean.

1. Aurrekariak

1.1. "Hizkuntza propio" kontzeptuaren esanahi juridikoa

Laurogeiko hamarkadan, berezko hizkuntza zeukaten autonomia erkidegoak (Katalunia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Galizia, Valentzia eta Mallorca) hizkuntza normalkuntzarako legeak onartzen eta garatzen ari zirenean, Kataluniako doktrina "hizkuntza propio" kontzeptua lantzen hasi zen. Kontzeptu honek bi alderdi ditu. Alde batetik, gertakari historiko bat adierazten du; hau da, iraganean, lurralde jakin batean, hizkuntzaren eta gizartearen artean egondako lotura. Eta hau oso garrantzitsua da, hementxe oinarritzen baita Konstituzio espainiarrak nazionalitate eta erregioen artean egiten duen ezberdintasuna: berezko hizkuntza daukaten erkidegoak -gaztelaniaz gain, honakoa Estatu osoko hizkuntza komuna dela baitio Konstituzioak-nazionalitateak izango lirake, eta berezko hizkuntzarik ez daukatenak, berriz, erregioak.

Baina Hizkuntza Zuzenbidean aditu direnek ondorio juridiko garrantzitsu bat atera zuten, hain zuzen ere goian aipaturiko bigarren alderdia izango litzatekeena: hizkuntza propioek lehentasuna daukatela bizitza kolektiboan.

1.2. Euskara, Nafarroako hizkuntza "propioa"?

Arau estatutarioei dagokienez, Nafarroako Hobekuntzak ez zuen puntu honi buruz deus esaten. Besterik gabe, Nafarroako eremu euskaldunean euskara ofizial deklaratzera mugatu zen.

Nafarroako historia linguistikoari begiratu gero, pentsatzekoa da hizkuntza propioaren inguruko isiltasun hori ez ote den euskarak Erreinuko hizkuntzen historian izan duen garrantziari zor zaion begirunearen ondorio. Europan, hizkuntza batek ere ez du sekula lurralde batean hainbeste denbora iraun. Aurrehistoriatik XIX. mendera arte, ia Nafarroa osoan mintzatu izan da euskara. José María Jimeno Juriok *Navarra y el euskera* lan berritzaile eta garrantzitsuan esaten duenez, hizkuntza tinko mantendu zen Erreinuko erdialde eta mendialdean.

XVIII. mendean, Monarkia espainiarrak gaztelania inposatzeko politika abian jarri zuenean, baztertu eta zapaldu egin ziren penintsulako gainerako hizkuntzak. Sortze bidean zegoen Estatu-nazioak hizkuntza bakar bat nahi zuten, eta huraxe erabili beharko zen hezkuntza "nazionalen" -alfabetizazio masiboa egitea erabaki zuten-, Administrazioan eta Armadan. Monarkian mintzatzen ziren gainerako hizkuntzak soberan zeudela iruditzen zitzaizkien, eta, ondorioz, baztertzekoak zirela.

Nafarroan, Kontseilu Errealak, Borboien erreformismo estatalaren ildoari jarraituz, neurri murriztaileak ezarri zituen mende horretan bertan liburuen argitalpenean eta irakaskuntzan, eta euskarak galdu egin zuen bere nagusitza Lizarrako zati batean eta erdialde zein ekialdean. Hurrengo mendean, Estatu konstituzionala, uniformizatzeko asmoarekin jarraituz, faktikoki ofiziala zen hizkuntzaren erabilera hedatzen saiatu zen. Dirudienez, Nafarroaren kasuan erabakigarria izan zen gudarosteak bertan kantonatuta egotea -sei urte Napoleonen garaian, beste sei 1833 eta 1839 artean, eta hiru azken gerra karlistan-. Beste alde batetik, aipatzekoa da 1841etik aurrera, Erreinu izaera galtzean soldadutza egiteko betebeharra finkatu zenean, nafar euskaldunek kuarteletan irainak jasotzen zituztela euskara erabiltzeagatik. Eta eskoletako irakaskuntza plan ministerialen esku gelditu zenez, haurrei euskaraz mintzatzeko ohitura kentzeko neurriak hartzen hasi ziren, oso gogorrak zenbaitetan. Antza denez, Elizak ere izan zuen zerikusirik euskararen erabilera gutxitzeko prozesuarekin, parroketan euskararik ez zekiten eta pastorala (sermoia, aitortza, kristau ikasbidea) gaztelania hutsez egiten zuten apaizak jarri baitzituen.

Gutxiespen eta jazarpeneko testuinguru honetan, eta Bonaparteren 1865eko mapak erakusten duenaren arabera, euskara desagertu egin zen Urbasa eta Andiako mendizerren hegoaldean, eta asko jaitsi zen bere kokapen tradizionalaren hegoalde eta ekialdean. 1935ean, Irigaray jabetu zen bizpahiru belaunalditan galdu egin zela erdialdean -Iruñerria eta Pirinio azpiko bailarak barne-, Erronkariraino.

Baina azken bi mendeetan gertatu den gutxitze prozesu azkarrak ezin du Nafarroaren eta euskararen artean behar luzean egon den harreman estua -Europar diren guztien artean estuena- ezkatatu. Horregatik, eta tamalez, Hobekuntzak euskara ez aldarrikatzeak Botere Legegileak herriaren hizkuntzaren historiari buruz duen ezjakintasuna uzten du agerian. Edota, beharbada, ondare kulturalarekiko lotsa edo gorrotoa.

1.3. Euskararen aintzatespen ofizialaren aurrekariak XIX eta XX. mendeetan

Dena den, euskararekiko axolagabekeria, zabarkeria edo gorrotoa ez zituzten denek sentitzen. Adibidez, XVII. mendean, Moret historialariak bere atxikipena adierazi zion euskarari, eta obra edo memorialen egile batzuek ere biztanleen gehiengoaren “hizkuntza naturala”-ren aldeko aldarrikapenak egin zituzten. Benetako erreakzioak, hala ere, XIX. mendearen bukaeran sortu ziren. Euskararen aipaturiko gutxitze prozesuaren -eta Foruen galeraren- ondorioz, Iruñan Euskara Elkartea sortu zen, besteak beste euskara mantentzeko eta Erreinuko instituzio publikoak berreskuratzeko xedeak zituena. 1896an, Nafarroako Aldundiak idatzi bat bidali zion Elkarteari, euskararen irakaskuntza ofizializatzeko egiten ari zen lanagatik bere babesa eskainiz. Oso testu modernoa zen, aparta XIX. mendeko eta XX.eko lehenengo hamarkadetako pronuntziamentu instituzionalen artean².

Baina II. Errepublikara arte ez zen neurri edo ekintza eraginkorrik hartu. 1916an asmo oneko pronuntziamenturen bat egin zen, eta 1925ean sari eta argitalpenentzako fondo bat eratu zen³. Errepublikako urte nahasiei dagokienez, udalek 1931ko abuztuan berretsitako Proiektu estatutario eusko-nafarrean aipu egiten zaio hizkuntzaren trataerari. Aldundietako Batzorde Kudeatzaileen testu autonomiko berriak tarte luze eta zabala eskaintzen zion euskararen ofizialtasunari, baina 1932an atzera bota zuten testua Iruñan.

1956ko azaroan, oraindik ere Diktadura frankistako une latzak bizi zirenean, Diputazioak **Euskara Sustatzeko Saila** sortu zuen Vianako Printzea Institutioan, euskara “aztertu eta

sustatzeko”⁴, eta “gure antzinako hizkuntza ohoratua biziraupena” bermatzeko neurriak har zitatzela eskatu zieten erretoreei. Gainera, euskaraz egiten zuten haurrei sariak ematen hasi ziren, eta 6.000 ale ateratzen zituen hilabetekari bat ere argitaratu zen. Nolanahi ere, ekimena nahiko eraginkorra izan arren, une horretan bestelako jarrera zeukaten Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Aldundiek, Estatuko Administrazioak hizkuntza baztertzeko zeraman politika berberari eusten baitzioten.

1967an, Nafarroako 500 unibertsitari inguruk ikastetxeetan euskara ofizial izenda zedila aldarrikatu zuten. Horren aurrean, Foru Aldundiak, erantzun bat eman nahirik, araudi bat onartu zuen: “eremu euskalduneko eta erdi-euskalduneko” herri nagusietako eskoletan *egunero, ordu erdiz, eskola ordutegitik kanpo eta asistentzia borondatezkoa izanik* euskara subentzionatzeko konpromisoa hartzen zuen, eta, eremuka, eskola txikiak subentzionatzekoa⁵. Handik hiru urtera, Aldundiak adierazi zuen bazegoela Aurreeskolako eta oinarrizko hezkuntzako ikastetxe elebidunak sortzeko aukera, eta baita ordurako existitzen ziren edo geroan sortuko ziren ikastetxe elebidunak subentzionatzekoa ere⁶. Garai hartan, neurri bata zein bestea irudikatu ere ez zituzten egiten Estatuko beste lurraldeetan. Foru Aldundiak, aditzera ematen zuenez, irekita zeuzkan bere atek euskararentzat, eta nolabaiteko aprezioa zion gainera.

1.4. Euskararen ofizialtasunaren lehenengo adierazpena Nafarroan, 1980ko azaroan

Ofizialtasunaren lehenengo adierazpenaren inguruabarrak eta edukia aztertzen hasi baino lehen, ohar gutxi batzuk egin nahiko nituzke ofizialtasunaren esanahi juridikoari eta Nafarroaren marko politikoari buruz.

Ofizialtasunari dagokionez, kontuan izan behar da **Zuzenbide konparatuak** ez duela irtenbide bakar bat ematen, baizik eta erkidego politikoetan planteamendu eta erregimen ezberdin ugari daudela hizkuntza baten erabilerari buruzko araudia ezartzeko orduan. Izan ere, Hizkuntza Zuzenbidean ez dago *marko teoriko objektibo eta ukaezin bakar bat*. Egongo balitz, herrialde eta kultura guztietako legegileek

2. Nafarroako Diputazioak argitaratu zuen urte hartan, eta *Euskal-Erria* aldizkarian jaso zen 34 (1896) 50-55.

3. 1925-III-4ko Boletín Ofiziala, 34. zkia.

4. Foru Aldundiaren Akordioa, 1956-XI-28koa (1957-XI-20 BO, 139. zenb.).

5. Foru Aldundiaren Akordioa, 1967-I-25ekoa (1-III BO, 20. zenb.).

6. Akordioa 1970-X-16an hartu zen.

onartu egin beharko lukete. Orduan, Zuzenbide konparatua ez al dago erkidego bakoitzeko araudiak ebaluatzeko erreferentzia gisa balio duen konstanterik? Bai, konstante horiek egon badaude. Hortaz, hizkuntza bat ofizial deklaratzeko, erkidego politikoei hiru arlotan arautu behar dute hizkuntza horren erabilera: Administrazioan, irakaskuntzan eta hedabideetan.

Estatu espainiarreko autonomia erkidegoetako hizkuntzari buruzko araudietan **marko erreferentzial teoriko-praktiko** bat daukagu, eta hain zuzen ere honen arabera baloratzen dira ofizialtasun mailak. Marko hori osatzen dutenak dira Estatuko Konstituzioa, Estatutuak, lege normalizatzaileak eta, azkenik, sistema aplikatzean sortzen diren legezketasun gatazkak konpontzeko ematen den jurisprudentzia konstituzionala.

Ezinezkoa da ofizialtasunaren alderdi guztiak azaltzea, baina, aldiz, beharrezkoa da Nafarroako araudia beste autonomia erkidego batzuetako hizkuntza araudiekin alderatzea, batik batik Euskal Autonomia Erkidegoarekin, hizkuntza berbera mintzatzen delako bietan.

Gorago aipatu dudan bigarren puntuaren oinarria hauxe izango litzateke: *ofizialtasunaren adierazpenak Nafarroako Konstituzio espainiarrak aintzatetsitako autonomia eskuratzeko prozesuarekin duen lotura*. Prozesu hau 1979ko azaroaren 5ean jarri zen abian. Hasiera batean ez zeukaten Autonomia Estatutuak prestatzeko asmorik; beste bide ezberdin batetik jo nahi zuten autogobernu berria lortzeko: Konstituzioko Lehenengo Xedapen Gehigarrian aintzatetsitako eskubide historikoak 1841eko abuztuaren 16ko Legearekin uztartuz, alegia. Horregatik, Aldundiak Parlamentuari aurkeztutako Oinarrian Nafarroako gobernu organoen funtzioen banaketa, osaketa eta hautaketa sistema bakarrik aipatzen ziren; arautu gabe utzi zituen organo eta eskuduntzen arloak, Nafarroako hizkuntza ofizialak besteak beste. Hizkuntza albo batera utzi izanak zirrara handia eragin zuen gizartean, eta 1980ko martxoaren 19an jendetza izugarria bildu zen manifestu bat irakurtzeko. Orduetik aurrera, euskararen ofizialtasun adierazpena eta Nafarroako Autonomia Estatutu berria batera izapidatu ziren. Azken honi *Hobekuntza* izena eman zitzaion, Felipe III.aren (1330) eta Carlos III.aren (1418) Erdi Aroko ordenamenduen oroigarri.

Nafarroako Parlamentuan eztabaida gogorrak izan ziren 1980ko uztailaren 2 eta 3an, *Euskara Nafarroako hezkuntza sisteman sartzeko oinarriak* aztertzerakoan. Talde parlamentarioek orduantxe finkatu zuten

hizkuntzaren inguruan zuten jarrera, gerora mantenduko zutena. Une hartan ezer erabaki ez bazuten ere, debatean, *de facto*, nafar lurraldea hainbat eremutan banatzeko ideia gailendu zen.

Dagoeneko aipatu dugu talde parlamentario batzuek manifestazio bat antolatu zutela martxoan. Bada, bertatik proposamen bat atera zen, Parlamentura iritsi zena, eta honako ezaugarriak zituen: gaztelania eta euskara izendatzen zituen Nafarroako hizkuntza ofizial, Parlamentuak gerora hizkuntza lege bat landuko zuen, eta arau hori Madrilen negoziatutako Hobekuntzari erantsiko zitzaion. Eskuindarrek ez zuten ofizialtasun adierazpena onartzen, sozialista eta nazionalistek, elkarrekin, beste testu bat prestatu zuten: *"Bat. Gaztelania eta euskara izango dira Nafarroako hizkuntza ofizialak. Bi. Printzipio hori Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeko Oinarriari erantsiko zaie, eta Foru Parlamentuak eskuduntza osoa izango du lege baten bitartez arautzeko"*. HB bat etorri zen hasierako testuarekin, baina gero sozialista eta nazionalistek prestatutakoari eman zion adostasuna. Aldeko 33 boto eta kontrako 29 jaso zituzten testuak.

Akordioak oso alderdi on bat zeukan: euskararen ofizialtasun printzipioa eta Parlamentuaren eskuduntza, deklarazioa onartzen zen une beretik aintzatesten zituela. Beste alde batetik, argi ikusten zen ofizialtasun adierazpena Madrilen negoziatu beharreko Oinarrietan sartzeak arrisku bat zekarrela, negoziatzaileek Parlamentuak onarturiko printzipioa ahul zezaketeelako. Eta horixe gertatu zen, hain zuzen ere.

Oro har, bai Hobekuntzaren aurreko fasean, bai Vasuencearen Legea izena hartuko zuenaren geroko fasean, HBk uko egin zion politikan agintzen duen indarren harremanen printzipioari. Argi dago aldi hartan PSNk eta nazionalistek, bat eginik, gehiengo osatzen zutela, oso gehiengo handia ez bazuten ere, eta beraz alderdi horren planteamenduak oso kontuan hartu behar zirela, eta nazionalistek ezin zituztela beren asmo nagusiak gauzatu. HBk autobaztertzeko azaldutako joerak oztopatu egiten zuen gehiengo urri horren eraketa, eta, ondorioz, gehiengoak eskuinarekin osatu behar izaten ziren. Baina eskuindarrek askoz ere baldintza gehiago ipintzen zituztenez, euskal planteamenduak bertan behera gelditzen ziren. Printzipioekin bat ez zetorrela-eta, HBk bere burua baztertu egin zuen Vasuencearen Foru Legearen Parlamentuko izapidetzan, eta, ikusiko dugun bezala, bere ausentziak erabat baldintzatu zuen Legearen prestaketa.

2. Euskara 1982ko Foru Hobekuntzan

Hobekuntza negoziatzeko Oinarriek ez zitoten hizkuntzari inolako aipamenik egiten, baina Parlamentuak 1980ko azaroan onartutako ebazpenak Oinarri horiek osatzeko asmoa zuela ulertzen zen.

Euskal nazionalismoa Madrilen Nafarroaren autonomia negoziatzen aritu zen taldetik baztertuta edo autobaztertuta egon, kontua da eskuindarrek gehiengoa osatzen zutela, eta gainera Gobernu zentralako negoziatzaileen babesa zeukatela. Sektore politiko horren ordezkariak debatean bertan esana zuten ofizialtasun adierazpena ez zela batere errealista, eremuak sortu beharra zegoela eta Parlamentuaren lege batek zuzendu egingo zuela hori guztia.

Negoziaketak hasi zirenean, Aldundiko kideek sarritan joan behar izan zuten Parlamentura, Foru Eraentzaren Batzordera, Gobernuarekin elkarrizketak nola zihoazen adierazteko. 1981eko ekainaren 21eko bilkuran jakinarazi zuten testuak Atariko titulu bat izango zuela, eta 8. artikulua edukia honakoa izango zela: *“gaztelania eta euskara izango dira Nafarroako hizkuntza ofizialak”*. Dena den, orduko zurrumurruek esaten zuten negoziatzaileek bestelako asmoak zeuzkatela ofizialtasun printzipioaren inguruan, eta eremu euskaldunetara mugatu nahi zutela. Aipaturiko biltzar informatiboetan, eskuineko talde parlamentarioek azkenean Madrilen gailenduko zen formularen alde egin zuten, nahiz eta nazionalistek, bien bitartean, Nafarroako Parlamentuan akordatutakoa errespeta zedila eskatu. Sozialistek ez zuten deus esan, baina, dirudienez, bazeukaten zerikusirik Estatuko hiriburuan lortzen ari ziren kontsentsuarekin.

1982ko otsailaren 24an eman zen ezagutzera Nafarroako hizkuntza ofizialen egoera arautuko zuen Hobekuntzako behin betiko artikulua (9.a): *“Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala. 9.2. Euskara ere hizkuntza ofiziala izanen da Nafarroako eremu euskaldunetan. Foru lege batek eremu horiek zehaztu, euskararen erabilpen ofiziala arautu eta, Estatuko legeria orokorraren xedearen barruan, hizkuntza honen irakaskuntza ordenatuko du”*.

Zer gertatu zen Gorteetako negoziaketetan? Zergatik utzi zuen PSNk Iruñako Parlamentuak onartutakoa (euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora zabaltzea) bertan behera gelditzen? Ofizialtasun horrek printzipioa geroago onartutako hizkuntza legean modulatzeko aukera emango zuen, eta, Nafarroako egoera sozio-linguistikoa kontuan

hartuz, pixkanaka aplikatzen joateko. Lurralde osoko ofizialtasuna eroso izango zen politika malgua egiteko, baina eremutzeak zurruntasun arazo larriak sortzen zituen, eta oztopatu egiten zuen gizartearen eskaria. Pedro Pegenaute, Talde Moderatuko parlamentariaren hitzetan, aukeratutako formulak 1979 eta 1982 artean bizitutako egoera politiko zaila konpondu zuen, eta “sekula aplikatu behar izango ez balitz bezala sortu eta onartu” omen zen. Cabasés nazionalistak adierazi zuen negoziatzaileek “gauekotasan eta azpikeriaz” jokatu zutela Parlamentuan hartutako erabakia ez betetzean. Bere iritzian, formula hori nafarrek eskatuta sartu zen, eta zuzenean Jaime Ignacio del Burgo, Rodolfo Martín Villa Autonomien ministroaren aholkularia, egin zuen erantzule.

9. artikuluari apenas egin zitzaion iruzkinik Hobekuntzari onespren formala emateko jarraitutako izapideetan. 1982ko martxoan Nafarroako Parlamentuan testu negoziatua berresteko egindako bilkuran hizkuntza ez zen aipatu ere egin, Victor Manuel Arbeloa sozialistak hizkuntzari egindako kantu liriko bat salbu. Diputatuen Kongresuan onarpena eman zitzaionean, berriz, Marcos Vizcaya eta Juan María Bandrés parlamentariak izan ziren hizkuntzari ematen zitzaion trataera okerra zela adierazi zuten bakarrak. Doktrinari dagokionez, Edorta Cobreros katedraduna azpimarratu beharra dago, Hizkuntza Zuzenbidean espezializatuta; bere esanetan, Nafarroako Hobekuntza, hiru alderditan bederen, asko urundu zen beste Autonomia Estatutuek finkatutakotik: ez zuen euskara hizkuntza propiotzat jo, ez zuen ofizialtasuna berehalakoan aldarrikatu -geroko lege bat onartu arte atzeratu baitzuen aldarrikapena-, eta eremu lurraldetar zorrotz bat finkatu zuen, Nafarroako errealtate sozio-linguistikoari tratera malgua ematea eragotziz.

3. Euskararen Foru Legea

Hizkuntza legearen Proiektua aurkezteko behar izan zen denbora luzeak agerian utzi zuen zailtasun handiak zeudela hizkuntza arautzeko, eta ez zegoela borondate politikorik. Hiru urte behar izan ziren Proiektuaren lehen zirriborroa aurkezteko. Eskuineko talde parlamentario batzuk isilik gelditu ziren; beste batzuek kritika gogorrak zuzendu zizkieten. Dena dela, 1985ean egoera aldatzen ari zen. Unión del Pueblo Navarro (UPN) eztabaidatzeko eta euskal nazionalista demokratikoak elkarrizketatzeko prest zeudela zirudien, eta Auzitegi Konstituzionalak ordurako epai garrantzitsu batzuk eman zituen hainbat autonomia erkidegotako hizkuntza legeak aplikatzerakoan sortutako gatazkak konpontzeko.

Ez zegoen denbora gehiagoz luzatzerik. Argi zegoen gehiengo parlamentarioek ezin zituztela hizkuntza eskubideak arbitrarioki xedatu.

3.1. 1986ko udazkeneko hasierako Proiektua

1986ko udazkenean, Gabriel Urralburu presidente zenean Nafarroako Gobernuan zegoen Alderdi Sozialistak aurreko Proiektuarekiko ezberdintasun garrantzitsuak zeuzkan Proiektu bat aurkeztu zuen. Malguagoa zen, eta hizkuntzalariei kontsultak egin ostean prestatua. Gainera, nazionalismo demokratikoak bigundu egin zuen bere jarrera.

Proiektua funtsezko bi printzipiotan oinarritzen zen. Alde batetik, adierazten zuen **Nafarroako eremu euskaldunean** izango zela euskara ofiziala, Estatuko Konstituzioaren 3.2 artikuluari [“*Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos*”], eta gorago aipatu dudana Hobekuntzako 9.ari jarraiki. Eremu horretan, ofizialtasunak *maila gorena* izango zuen. Bestetik, eta Konstituzioaren 3.3 artikuluan oinarrituz [“*La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección*”], **eremu mistoan sustapenerako eraentza berezi** bat sortu zen. Lurralde horretan, Administrazio publikoek honako jarduerak garatzeko konpromisoa hartzen zuten: “*actividades que crearían las condiciones que permiten la vida de aquello que se protege*”. Sustapenerako adierazpen konstituzionaletik eratorritako printzipioak, beste autonomia erkidego batzuetan **lurralde osorako normalkuntza legediak sortzeko** aplikatu baziren ere, Nafarroan beste helburu batekin erabili ziren: **eremu mistoan euskara sustatzeko eraentza berezi bat sortzeko**.

PSNko Gobernuaren Proiektuak ez zituen oso erreakzio itxaropentsuak eragin. Muturreko alderdiek, adibidez, erabat gaitzestu zuten: bai HBko euskal nazionalismoak, bai Nafarroako eskuindarrek, haserre eta amorrua agertu zuten testuaren aurrean. Ofizialtasuna Nafarroa osora hedatu nahi zela argudiatzen zen, eta Proiektu hori “infumablea” zela. Baina euskal nazionalismo demokratikoak eta hizkuntzalaritzaren inguruko zenbait pertsona ospetsuk etsi egin zuten, ez baitzegoen beste aukerarik. Horraino iritsi zitekeen indar horiek. Okerragoa zen inolako legerik ez izatea.

Hiru osoko zuzenketa aurkeztu ziren, aipatu berri ditugun jarrerak islatzen zituztela. UPNk aurkeztutakoak, 1985eko zirriborroaren planteamendu berbera errepikatzen zuen; Jaime

Ignacio del Burgoren popularrek Auzitegi Konstituzionalaren aurrean helegite bat tarteratuko zutela iragarri zuten; eta euskal nazionalistek aurkeztutako alternatibak Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean zegoen eta euskararentzat askoz ere onuragarriagoa zen Euskararen Normalkuntzarako Legearen testua kopia baino ez zuen egiten. Bestetik, 141 zuzenketa partzial aurkeztu ziren, tartean UPNk aurkeztutako 50 eta sozialisten 4 zeudela.

Labur esanda, beste autonomia erkidego elebidunetan aurreko urteetan hizkuntza propioaren erabilerari buruzko legeetan nahiko adostasun handia lortu bazen ere, Nafarroan ez zegoen hizkuntza eskubideen gaineko akordiorik. Eskuindarrek guztiz bazterten zuten sozialistek aurkeztutako Proiektua, Jaime Ignacio del Burgok bereziki. PSNren eta nazionalista demokratikoen arteko kontsentsuak 23 boto besterik ez zituen lortu beharrezko zituzten 26etatik, Proiektua izapidatzean ez zirelako HBko sei parlamentariak agertu. Ganberan zeuden lau talde eskuindarretakoren batekin akordioaren batera iritsi beharra zegoen (UPN, popularrak, Talde Moderatua eta Mistoa). Oro har, Talde Moderatua arduratu zen eskuindarren ikuspuntuak bateratzeaz, sektore honetako gainerako taldeek ez zutelako euskarak eremu euskaldunetik kanpo izango zuten erregulazioaren eztabaidan sartu nahi. Jarrera horrek asko mugatu zuen aurkeztutako testuaren norainokotasuna.

3.2. Foru Eraentzaren Batzordearen debaterako zenbait alderdi: hizkuntzaren izena, Atarikoaren justifikazioa, hizkuntza estandarra eta eremutzea

1986ko azaroaren 14, 17, 18 eta 19an eztabaidatu zen Proiektua Foru Eraentzaren Batzordean. Osoko zuzenketak eta zuzenketa partzialak aztertu zituzten, eta gai jakin batzuetan oso aldaketa esanguratsuak egin.

Lehenengo zuzenketarekin, **hizkuntzak Legean izango zuen izena aldatu zuten**. Ordura arte, Nafarroako Parlamentuak *euskera* edo *lengua vasca* terminoak erabili zituen, eta Proiektuak ere hitz horiek jasotzen zituen. Baina Hobekuntzaren negoziatzaileek, beren kontura, eta inolako Akademia edo hizkuntzalariri kontsultarik egin gabe, *vascuence* hitza sartu zuten. Antzinako izendapen bat zen, kutsu arkaikoa zuena, Aldundiak frankismoaren garaian erabilia, eta garai batean gaztelania izendatzeko erabiltzen zen *erromantze* hitzaren parekidea. Baina 1982 edo 1986an gaztelaniari inon ez zitzaion ofizialki erromantze deitzen; beraz, ez da oso ondo ulertzen zergatik erabaki zen euskara izendatzeko denboran galdutako termino bat

erabiltzea. Zer ote? 1982ko negoziatzaileek eta 1986ko zuzentzaileek espresio jator eta errespetagarriak berreskuratzeko grina? Hizkuntza alferrikako arkaismoarekin lotzeko gogoia?

Atarikoari dagokionez, esan behar da beste autonomia erkidegoetako (Katalunia, Valentzia, EAE, Galizia) hizkuntza legeek hizkuntzen diskriminazioaren prozesu historikoa azaltzeko aprobetxatu zutela atal hau, eta hain zuzen ere prozesu horretan oinarritzen zituztela hizkuntza normalizatzeko neurriak; hots, diskriminazio positiboko arauak. Nafarroaren kasuan, euskararen historia, diskriminazioaren memoria historikoa eta jazarpena ikusita, garbi zegoen eraentza berezi bat finkatuko zela. Horregatik esaten zuten testuak Nafarroak euskara kontserbatu beharra zeukala, *“eta are gehiago leku batzuetan hondatuta dagoela ikusita, dela denbora luzean diskriminatuta egon delako, dela nahita abandonatuta egon delako”*.

Del Burgo parlamentari popularrak argudiatu zuen diskriminazioa ez zela hain aspaldikoa, eta, apropos egina baldin bazen, ez zela gaitzesgarria. *Iter* parlamentarioan aldatu egin zenez hasierako proiektua, eta bere alde bozkatzeko asmoa zegoenez, modifikatu egin behar zen Atarikoak. PSN ados zegoen. Kendu egin zuten memoria historikoarena, Legearen aurretik ezer egon izan ez balitz bezala.

Hizkuntzaren eredia zein izango zen erabaki beharra zegoen; hots, literatur hizkuntza bateratua edota euskalkiak. Batzordeak emandako irizpenak lehenengo aukera hobesten zuten. Horrela, Euskaltzaindiak hizkuntzaren gaineko arauak emateko zeukan autoritate zientifiko eta tekniko aintzatetsi zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Normalkuntza Legeko 30. artikulukoa baino formula enfatikoagoa erabiliz gainera (“instituzio kontsultibo ofiziala”). Eskuineko parlamentari batzuek mesfidantzaz ikusten zuten hizkuntza estandarra, baina inguruabarrek aukera horren alde egitea aholkatzen zuten. 1986rako, literatur hizkuntza erabat kontsolidatuta zegoen, eta, gainera, batik bat nafar euskalkietan zegoen oinarritua. Beste alde batetik, gogoan izan behar da Nafarroak Euskaltzaindiaren sorreran parte hartu zuela, 1918an. Del Burgo parlamentariak hitz gogorrak bota zituen arau estandarren aurka, baina ez zekienez euskaraz egiten, bere iritziak autoritate zientifikorik gabeak ziren. Nolanahi ere, emendakin bat erantsi zitzaion irizpenari -Legeko 1.3 artikulua bihurtuko zena-: *“Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute”*. Vianako Printzea Erakundeari esleitu zitzaion horren ardura. Garbi dago euskalkiei egindako aipamen horrek balio erretorikoa zuela, nortasuna aditzera emateko.

Proiektuaren gai nagusia, muina, Hobekuntzako 9. artikulua inposatzen zuen **eremutzea** zen. Hori da hizkuntzaren erregulazio ofizialak Administrazio eta hezkuntzan dituen ondorioen iturria. Testuak hiru eremu finkatu zituen.

Lehenik eta behin, **eremu euskalduna** (5, a artikulua), Nafarroaren *ipar-mendebaldeko 56 udalerrri* biltzen zituena. UPN taldearen iritzian, eremu hau gairimentsionatu egin zen. Del Burgok proposatu zuen eremu horretan hizkuntzak nahikoa bizitasun zeukan udalerririk bakarrik sartu beharko liritekeela, hiztunen kopurua eta beste zenbait faktore sozio-linguistikoko kontuan hartuz, kalifikazioaren inguruan inolako zalantzarik egon ez zedin. Baina ez zuten udalerrien zerrenda berririk aurkeztu.

Eremu mistoa (5, b artikulua) 48 udalerririk osatzen zuten. Batzordeak Barañain erantsi zuen. Euskal nazionalistek ez zuten Merindadeko hiri nagusiak (Tafalla, Erriberri, Zangoza eta Tuter) bertan sartzerik lortu. Eremu mistoan egoera sozio-linguistikoa berezia zegoela ulertzen zen. Román Felones Hezkuntza kontseilariaren esanetan -bera izan zen, gainera, Proiektuaren aita, eta berak defendatu behar izan zuen Proiektua izapidetzan zehar-, errealitate hori alderdi ezberdin ugari osatzen zuten: ahalmen pertsonal eta sozialen multzoak, hizkuntzari lotutako eskaera eta egoerek, kulturaren aldetik zeuden itxaropenek, euskara ikastearen aldeko jarrerak, euskararen erabilerak eta hiritarren interes komunikatiboak. Talde moderatuak udalerririk bakoitzean erreferendum bat egin zedila proposatu zuen, eremu mistoan sartu nahi ote zuten adieraz zezaten, baina emendakinak ez zuten aurrera egin.

Gainerako lurraldeek **eremu ez-euskalduna** osatzen zuten (5, c artikulua). Eremu hau ez zen eskuindarrek eskemetan sartzen, hauek eremu euskaldun bat eta Nafarroako gainerako lurralde guztia bakarrik bereizten baitzituzten.

3.3. Euskararen Foru Legearen ebaluazio konparaturako parametroak eremu euskalduneari

Garai hartan oso iritzi gutxi kaleratu ziren Parlamentuak onartutako Legearen baliozkotasun edo egokitasunaren inguruan. Felones kontseilariak esan zuen ia ez zegoela batere ezberdintasunik **beste autonomia erkidegoetako hizkuntza legeen eta Gobernuak eremu euskaldunetako prestaturiko Proiektuaren** artean. Nolanahi ere, konparaketa, egokia izateko, hurbilagoko beste

zerbaitekin egin beharra dago, eta, zehazkiago, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Normalkuntzarako Legearekin (ENL). Hizkuntza berberaren ofizialtasuna arautzen dute, gainera. Beraz, galdera hauxe egin beharko genuke: benetakoa al da eremu euskaldunearan euskarari eman zitzaien ofizialtasuna? Pareka al daiteke beste autonomia erkidegoetakoarekin, eta, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegokoarekin? Eta zein ezaugarri dauzka eremu mistoan ezarritako eraentza linguistiko bereziak? Hiru eremuak lantzen dituen atalean erantzungo diogu galdera honi.

Konparaketak egiteko, gutxienez **sei parametro** hartu behar dira kontuan: hizkuntza eskubideen aldarrikapenaren existentzia eta norainokotasuna, eta euskararen erabilera Administrazio publikoetan, irakaskuntzan, hedabideetan, eta gizartean.

3.3.1. Eskubideen aldarrikapenaren norainokotasuna

Nafarroako Legean funtsezko bost hizkuntza eskubideen taula bat eta hauek bermatuko dituen adierazpen bat falta dira, ENLko 5.2 eta 3 artikuluetan egiten den bezala⁷. Egia da euskara Administrazioan eta irakaskuntzan erabiltzeari dagokionez oso adierazpen bereziak egiten dituela -bi arloetan esakune berberak erabiltzen ditu gainera-, baina bi arlo horietan bakarrik, eta beraz murriztuta gelditzen da ohiko hizkuntza eskubideen norainokotasuna (10. artikulua: *hiritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute*. 19. artikulua: *hiritar guztiek dute hezkuntza mailetan irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz izateko eskubidea...*).

3.3.2. Euskara Administrazio publikoetan

Arlo honetan, oso paralelismo handiak aurki daitezke EFL eta ENLren artean, nahiz eta badiren zenbait aldaketa eta apropos bilatutako ez-aipatze batzuk ere.

EFLan eta ENLan oso antzekoa da pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duten *espeditante* eta *prozeduretako* hizkuntzaren arauketa: alderdien esku gelditzen da hizkuntza

bat edo bestea erabiltzea (10.2 art.). *Erregistro publikoetan agiriak inskribatzeari* dagokionez ere, alderdien borondatea hartzen da kontuan, baina EFLan xehetasun bat eranstean da: Nafarroan idazpenek beti egon beharko dute gaztelaniaz (13.1 art.).

Botere publikoen xedapen eta ebazpen ofizialei dagokionez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean aldibereko edizio bananduetan argitara zitezela agindu zen (7. art.). Del Burgo parlamentariarentzat, buletin elebidun bakar batean argitaratzeak Hobekuntza “dinamitatzea” suposatzen zuen.

Administrazioaren egintzek eta *komunikazio administratiboek* tratamendu berbera daukate. Lehenengoek eraginkortasun juridiko osoa daukate euskaraz zein gaztelaniaz, eta gainera bi hizkuntzetan idatzita joan behar dute, interesatuek bietako bat erabiltzea aukeratzen dutenean salbu (11. art.). Eta *hiritarrek Justizia Administrazioarekin dituzten harremanetan*, hiritarrek beraiek aukeratutako hizkuntza erabili ahal izango dute, baina, betiere, “*indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera*” (14. art.). Zehaztu gabe gelditzen den legeria hau, haatik, ondo zehazten du ENLak.

Foru Komunitateko *toponimoen nomenklatura ofizialaren* inguruan eztabaida ugari piztu ziren Legea izapidatzeko unean, eta, hain zuzen ere, horregatik dakartza hainbeste xehetasun 8. artikulua. Proiektuak jasotakoaren arabera, gaztelaniaz eta euskaraz izan behar zuten izen ofiziala. Del Burgok proposatutako formula erabili zen, toponimia lurraldetzearena alegia: eremu euskaldunearan euskaraz eta gaztelaniaz joango zen izen ofiziala, gaztelaniazkorik edukitezotan bederen. Nafarroako gainerakoan, zegoen izena hartuko zen, eta, gaztelaniazko toponimoen kasuan, euskaraz jatorrizko eta ohiko izenik balu, biak erabiliko lirateke. Euskaltzaindiaren esku gelditu zen euskarazko terminoak finkatzeko lana.

Ez da deus esaten Administrazioak eta garraio enpresek *eredu* edo *inpreso elebidunak* erabiltzeari dagokionez, baina *euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko unitatea* sortzeko beharrari dagokionez antzeko trataera jasotzen dute (9. art.). Unitate honen zeregina, Administrazioak eskatutako edo partikularrek aurkeztutako ofizioen itzulpen ofiziala egitea izango litzateke.

7. Honela dio aipaturiko legeak: “5.2. Euskal herritarrei honako funtsezko hizkuntza eskubide hauek aitortzen zaizkie: a) Administrazioarekin eta Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein organismo edo erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea. b) Ikasketak bi hizkuntza ofizialean egiteko eskubidea. c) Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste hedabideetako emankizunak euskaraz jasotzeko eskubidea. d) Jarduera profesional, laboral, politiko eta sindikalean euskaraz aritzeko eskubidea. e) Edozein bilkuratan euskaraz egiteko eskubidea. 3. Eskubide hauek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen, botere publikoek beraien erabilpena bermatuko dute”.

Oso antzekoa da 15. artikulua *Administrazio publikoetako langileen euskara erabiltzeko gaikuntza progresiboari* ematen dion tratuera. Eta izaera publikoko enpresetako langileak ere artikulua horretan bertan sartzen ditu EFLak. Beste hainbeste gertatzen da *euskaraz jakitea nahitaezkoa den lanpostuen* zehaztapenean, eta *merezimendutzat hartzen* direnetan -merezimendu "kualifikatua", dio EFLak-.

Aztertzeke gelditu zen *Foru Administrazio zentralean*, Iruñan -eremu euskaldunetik kanpo beraz-, *zirkuitu administratibo elebidunak* sortzearen kontua. Gai honek bazuen bere garrantzia. Proiektuan aurreikusita zegoen arren, azkenean ez zen bukaerako testuan sartu, eta soilik eremu mistoko hizkuntza eraentzaren neurri gisa aurreikusi zen. Eskuindarren emendakinek kendu egin nahi zuten instituzio hau. Nolanahi ere, 1. Azken xedapenean jasotzen da beraz sortzeko aukera ("*Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezko diren xedapenak emateko*").

E. Cobreros katedradunak Azken xedapen horrek EFLko 15.2 artikulua erregelamendu bidez garatu ahal izateko duen garrantzia azpimarratzen du, horrela lanpostu elebidunak zeintzuk diren zehazteko eta funtzio publikoan sartzeko euskara jakitea merezimendu gisa kontuan hartzeko. Eragozpenak 1983ko Pertsonalaren Estatutua eta 1985eko Nafarroako funtzio publikoan sartzeko Erregelamendua lirateke, merezimendua potestatibo eta zehazgabetzat jotzen dutelako.

3.3.3. Euskara irakaskuntzan

EFLko 19. artikuluan jasotako *eskubidearen aldarrikapena* ("*hiritar guztiak dute hezkuntza mailatan irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko eskubidea...*"), beste hizkuntza legeetan jasotzen denaren antzekoa da. Aurkakorik esaten ez den bitartean, unibertsitateko irakaskuntza ere aurreikusten duela uler daiteke. Eta gauza bera esan daiteke *familiako arduradunak irakaskuntzarako hizkuntza nagusi modura hizkuntza bat edo beste aukeratzeko erabakiari* eta *euskara ikasgai bezala ikastearen betebeharrari, salbuespen kausei*, eta *ikasketak amaitzean gaitasun nahikoa frogatzeari* dagokienez (24. art.).

Konpromisoak ilunagoak dira *ikasketa planetan*, eta aurreikuspenak falta dira *hizkuntzaren erabilera anbigualari* eta *ikastetxeetako jarduera administratiboari* buruz, eta, batez ere, *irakasleen euskara erabiltzeko gaikuntza progresiboari* buruz.

3.3.4. Euskara komunikabideetan

EFLak ez du egiten hiritarrek komunikabideen bitartez informazioa euskaraz jasotzeko duten eskubidearen inguruko adierazpenenik. Beste hizkuntza arauak bi hizkuntzen erabilera *progresiboki parekatzea* aipatzen duten bitartean, EFLak *presentzia egokia* esaten du, eta, asko jota, Komunitate Autonomoko irratia eta telebistetan *presentzia progresiboa*. Ez da inolako konpromisorik hartzen telebista estatalaren inguruan. Beraz, hizkuntza kontsolidatzeko hain garrantzitsua den komunikabide sozialen arloan, babesa baino ez zaio ematen euskarari, sustapen neurri bat bera ere hartu gabe.

3.3.5. Euskararen erabilera gizartean

Honako hau, Euskararen Foru Legearen zatirik ahulenetako bat dugu. Ez da deus esaten *inter privados* harremanei buruz; hau da, merkataritza, kultura, elkarte, kirol, erlijio eta bestelako arloetan hiritarrei euskaraz egiteko aukera eskaintzeko konpromisoaz. Ez dira arautzen, ezta ere, *helduen irakaskuntza* eta *euskaldunen alfabetatzea*. Ez da inolako *organo normalizatzailearen* sorrera aurreikusten, nahiz eta gerora Euskararen Kontseilua eratuko zen, eta ezta ere *euskara ikertu, babestu eta sustatzen duten erakundeekin* loturak izatea ere.

3.3.6. Estatuko Administrazio periferikoaren jarrera

Euskararen Foru Legeak ez zuen ezer esaten Estatuko Administrazioak euskararekiko izan behar zuen jarrerari buruz. Legea Administrazio periferikoan aplikatzeko, Gobernu zentralarekin negoziatu beharko zela adierazi zuen UPNk, baina ofizialtasuna modu eraginkor batean aplikatu nahi zutenentzat egokiagoa zen Auzitegi Konstituzionalaren doktrina jurisprudenziala aplikatzea negoziaketan emaitzak baino, negoziaketetan araudian ezarritakoa aldatzea erabaki zitekeelako.

3.4. Eremu mistoko hizkuntza erregimena

Lehen, eremu mistoa aipatu dugunean, adierazi dugu espainiar Konstituzioko 3.3 artikulua hartu zela oinarritzat bertan eraentza juridiko berezi bat ezartzeko. Berebat, esan dugu artikulua hori normalkuntza politikak ezartzeko erabili zutela beste zenbait autonomia erkidegotan. Nafarroan, ordea, nahiko zeregin

berezia eman zitzaion, euskarak eremu euskalduneari bizi zuen konfinamendu gogorraren ondorioak gainditu nahi zirelako. Konstituzioko 3.3 artikuluen bidez, sustapen ekintza publikoei eta eremu mistoko hiritarren eskubideen aldarrikapenari euskarri legala eman zitzaion. Eskubide hauek, horrela, eremu euskalduneari titulu ezberdin bat (zuzeneko ofizialtasuna) daukatenean pareka daitezkeela esan genezake. Horregatik zeukaten balio juridikoa Atarikitik kendutako testu zatiek. Euskara egun bizi duen minorizaziora eraman duen prozesu historiko tamalgarria izango litzateke tratu konpentsagarri horren funtsetako bat.

Eskuindarrek argudiatu zuten Proiektuak euskarari ematen zion babesari gehiegi hurbiltzen zitzaioela ofizialtasunari. Ezabatu egin nahi zituzten eremu mistoa eta ez-euskalduna, eta "Nafarroako gainerakoa" atalean sartu. Sektore politiko honen asmoa, gehienez jota, eremu horretan "sustapen" ekintzei aipamen orokor bat egitea zen, baina zehaztasun gehigian sartu gabe eta eskubiderik aitortu gabe, bestelakoan jite euskalduna emango baitzitzaion aipaturiko eremuari. Horregatik aurkeztu ziren hainbeste emendakin eremu mistoan eta ez-euskalduneari euskarari nolabaiteko estatusa aitortzen zioten artikuluek ezabatzeko. Eta, hori lortzerik ez izatekotan, ahal zen neurrian Administrazioari eta irakaskuntzari buruzko artikuluen norainokotasuna murriztu edo desnaturalizatu nahi zuten.

3.4.1. Euskara Administrazioan

Arlo honetan, Proiektuaren testua eta Euskal Nazionalisten eta Moderatuen talde parlamentarioek aurkeztutako emendakinak alderatu beharko genituzke. Azken talde honen emendakina izan zen lege bihurtu zena.

3.4.1.1. Proiektua

16. artikulua. Hiritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoaren **harremanetan**.

Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipaturiko Administrazioek hurrengo artikuluetan zehazten diren neurriak HARTU eta bitartekoak ARBITRATUKO dituzte.

17. 1. Nafarroako Administrazio Publikoek urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zehaztuko dute zein lanpostutarako izanen den nahitaezko euskaraz jakitea.

2. Gainerako lanpostuetara iristeko, euskararen ezagupena merezimendu gisa *baloratu ahal izango da*.

18. artikulua. Nafarroako Gobernuak euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko unitate administratiboa sortuko du Iruñan, eta, erregelamendu bidez, Foru Komunitateko departamentuetan euskararen erabilera bermatzeko beharrezko diren neurriak hartuko ditu.

3.4.1.2. Euskal nazionalistak

16. artikulua. Hiritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoaren **harremanetan**.

Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipaturiko Administrazioek honako neurriak **HARTUKO** dituzte:

- A) Urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zein lanpostutarako izanen den nahitaezko euskaraz jakitea zehaztea.
- B) Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskararen ezagupena merezimendu gisa baloratzea.
- C) Euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko zerbitzua erabiltzea.

18. artikulua. Nafarroako Gobernuak euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko unitate administratiboa sortuko du Iruñan, eta, erregelamendu bidez, Foru Komunitateko departamentuetan euskara erabiltzeko eskubidea bermatzeko beharrezko diren neurriak hartuko ditu.

3.4.1.3. Talde Moderatua eta behin betiko testua

16. artikulua. Hiritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute **Nafarroako Administrazio Publikoari zuzentzeko**.

Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipaturiko Administrazioek zera egin **AHAL IZANGO DUTE**:

- A) Urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zein lanpostutarako izanen den nahitaezko euskaraz jakitea zehaztea.
- B) Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskararen ezagupena merezimendu gisa baloratzea.

Ikus daitekeenez, jatorrizko testuak eremu mistoko *Administrazioaren harremanetan* euskaraz jarduteko eskubidea aintzatesten zuten; hau da, administratuek Administrazioari euskaraz zuzentzeko eskubidea zeukan, eta honek hizkuntza berean erantzun beharko zion

horregatik sortzen zen Iruñan itzulpen unitate berezi bat, orokorraz gain. Talde Moderatuaren emendakinak aldatu egin zuen “*Administrazio Publikoarekiko harremanetan*” esamoldea, eta bere ordean “*Administrazio Publikoari zuzentzeko*” ipini. Gainera, kendu egiten zuen itzulpen unitatea. Ezabatu egin zuen, baita, Foru Komunitateko departamentuetan euskara erabiltzeko eskubidearen bermea. Del Burgok zoriondu egin zituen emandakinaren egileak, baina ez zuen emendakinaren alde bozkatu, ez zegoelako Administrazioaren alorrean ezer emateko prest. Bere iritzian, Administrazioek jaso zitzaizketen euskarazko idazkiak, baina ez zuten zertan hizkuntza berean erantzun. PSNko bozeramaileak bat egin zuen interpretazio honekin, ez ordea Felones kontseilariak eta Urralburu presidenteak. Azken hauek argudiatu zuten Administrazioak legeaz eta bere borondatez har zezakeela konpromiso hori; ez ofizialtasun modura, baizik eta sustapen neurri gisa.

Ganberan izandako eztabaida bizian, Cabasés parlamentariak adierazi zuen 17. artikulua behin betiko idazketak eremu ez-euskaldunaren parean uzten zuela eremu mistoa ikuspegi administratiboan. Del Burgok pozik hartu zuen aldaketa, modu horretan EFL bere taldeak aurkeztutako osoko zuzenketaren espiriturantz hurbiltzen zelako: ofizialtasuna eremu euskaldunean, eta sustapena, zentzu hertsian, gainerako lurraldean. Talde Moderatuaren emendakinak erabateko aldaketa ekarri zuen, atzerajotze bat, estrategia aldaketa bat. Argi dago are anbiguoagoa bihurtu zela eremu mistoan Administrazioarekin euskaraz egiteko eskubidearen formulazioa, baina Administrazioa langileen hizkuntza gaitasunari euskarri legal bat ematen jarraitzen zuen.

3.4.2. Euskara irakaskuntzan

Eskuindarrek hasiera-hasieratik egin zituzten eremu mistoan euskarazko irakaskuntza kentzeko ahaleginak, Hobekuntzak finkatutako eremutzearen aurka zihoalako. Baina, ezin zutenez beren helburua bete, Proiektuko konpromisoa ahalik eta txikiena izaten saiatu ziren.

Honela zioen Proiektuko testuak:

“Euskara gradualki, progresiboki eta nahikotasunez sartuko da irakaskuntzan, euskaraz irakatsiko duten ikastetxeak sortuz.

Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan **euskaraz irakatsiko da, nahi duten ikasleek, eskolatzearen bukaeran**, euskararen ezagupen nahikoa izan ahal dezaten”.

Del Burgo parlamentari popularrari ez zitzaion batere gustatu ikastetxeetan “euskara” gradualki eta “nahi dutenei” irakastearen kontua. Zuzendu egin zuen “ikastetxeak sortzearen” erreferentzia, ikastetxeak ikasgelez betetako unitate pedagogiko eta juridikoak direlako. Ikastola publiko bat sortzeaz ari al ziren? Talde Moderatuak, del Burgorena ez beste, eskuindar guztien babesa jaso zuen emendakin bat aurkeztu zuen, lerro elebiduneko ikastetxeak sortzearen aldekoa, eta borondatezkotasun printzipioa aldarrikatzen zuena (“**ikastetxeetan, eskatzen dutenendako, euskarazko lerroak sortzea**”). Bigarren paragrafoan, letra lodia beste honengatik aldatu zen: “**euskaraz irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten**”).

Azkenean finkaturiko sistemak eremu mistoan euskara eta euskaraz irakasteko aukera eman zuen, eta Administrazioa eskariari erantzun bat ematera behartzen. Sartu zitzaizkion aldaketek ez zuten Proiektuaren hasierako sistema gehiegi aldatu.

3.5. Sustapenik ez eremu ez-euskaldunean

Artikulu bakar batek arautzen zuen euskara eremu ez-euskaldunean. Proiektuak euskararen edo euskarazko irakaskuntza -ez zegoen oso argi- osoki edo partzialki finantziatzeko asmoa zeukan, eta, kasu jakin batzuetan, sustatzekoa ere bai. Horrez gain, ikasketa programetan euskara “Nafarroako kultur ondare” modura sartzea aurreikusten zuen, eta, berebat, jendea euskara “ezagutu eta ikastera” bultzatzea. Del Burgok artikulua kentzeko eskatu zuen, eta Talde Moderatuak, orduan, buruzagi popularraren kezka arintzeko, aldatu egin zituen bai ezagutu eta ikastearena, eta baita euskara Nafarroako kultur ondaretzat jotzen zuen erreferentzia. Gogora dezagun zer dioen artikulu bakarreko IV. Kapitulua: “*Irakaskuntza eremu ez-euskaldunean. 26. artikulua. Euskararen irakaskuntza bultzatua izanen da, eta hala behar izanez gero, botere publikoek osoki edo partzialki finantziatua, sustapen edo promozio irizpideei jarraiki eta eskarien arabera*”. Legeak ez du obligazio eta betebeharririk ezartzen; aitzitik, diskrezionaltasunez jokatzen du.

Behin araua onartuta, garapen eta aplikazio fase berri bati eman zitzaion hasiera. Hamabost urte igaro dira ordutik. Lehenengo balantze bat egiteko garaia heldu da.